Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2022/7
Data /Fecha 2022/06/29
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IUBA0006
**Gaia/**Asunto**:** 2022/06/28 Ohiko Udalbatzarra/Pleno Ordinario del 28/06/2022

**Udalbatzak 2022ko ekainaren 28an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko ekainaren 28ako 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA
- Maite GARTZIA ONTIVEROS

**Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporacion celebrada el día 28 de junio de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 28 de junio de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA
- Maite GARTZIA ONTIVEROS

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzailea.

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Isaac Palencia Caballero (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)).

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Irune Soto Cotorro.

No asiste excusando su inasistencia, Isaac Palencia Caballero (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)).

**1. 2022ko maiatzaren 31eko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2022IUBA0005)**

Oharrik gabe onartu da.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 31 de mayo de 2022. (2022IUBA0005)**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 1154 zk.tik 1414 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados, nºs 1154 al 1414 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Proposamena: Aurrekontu aldaketa (dirulaguntza izendunak eta tranferentzi kredituak KALD-11) onartzea. (2022SKAL0006)**

Kreditu transferentzia modalitatean aurrekontuko kredituak aldatzeko proposamena ikusirik, 2022-KALD-11- zenbakikoa.

Kontu-hartzaileak emandako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

**3. Propuesta: Aprobación de la modificación del Presupuesto ( subvención nominativa y créditos de transferencia KALD-11). (2022SKAL0006)**

Vista la propuesta de modificación de créditos del presupuesto vigente, mediante transferencia de créditos, n.º 2022-KALD-11.

Según el informe y certificación emitidos por la interventora dicho expediente está ajustado a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

* 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (aurrerantzean, Foru Araua).

* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

2022ko ekainaren 22an, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Udalbatzak, aldeko 12 botoren gehiengoarekin (EH Bildu Orereta/Errenteria eta Elkarrekin Errenteria) eta 8 abstentziorekin ( Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta EAJ/PNV), hau erabaki du:

**ERABAKI DU**

**1.- ONARTZEA** aurkeztutako Udal honen aurrekontuko kredituak transferrentzia bidez aldatzeko KALD0011- espedientea.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

* Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa (en adelante Norma Foral).

* Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local

Visto que en fecha 22 de junio de 2022, a propuesta de la Concejala Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 12 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria) y 8 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) y EAJ/PNV).

**ACUERDA**

**1.- APROBAR** la propuesta del expediente de modificación de créditos KALD0011-mediante transferencia.

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Partidas de gasto transfieren crédito (bajas)

| Kapitulua Capítulo | Izena / Denominación | Egungo kredituak Créditos actuales | Murrizketa Disminución | Amaierako kreditua Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN<br>GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS | 196.000,00 | 42.000,00 | 154.000,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | 315.000,00 | 130.000,00 | 185.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **511.000,00** | **172.000,00** | **339.000,00** |

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

*Partidas de gasto que reciben crédito (altas)*

| Kapitulua Capítulo | Izena / DenominaciónGASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS | Egungo kredituak Créditos actuales | Igoera Aumento | Amaierako kreditua Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS | 90.000,00 | 132.000,00 | 222.000,00 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA DIRULAGUNTZAK SUBVENCIONES Y TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **90.000,00** | **172.000,00** | **262.000,00** |

2.- ONARTZEA udal aurrekontuko dirulaguntza arrunten eranskinaren aldaketa, honako dirulaguntza izendunak gehituz edo/eta aldatuz:

2.- APROBAR la modificación del anexo de subvenciones corrientes del presupuesto municipal, incluyendo y/o modificando las siguientes subvenciones nominativas:

| Azalpena / Concepto | Partida (*) | ZENBATEKOA Importe |
|---|---|---|
| DIRULAGUNTZA: ZIZT KULTUR ELKARTEA SUBVENCIÓN: ASOCIACIÓN CULTURAL ZIZT | 1 0830.481.08.334.10 | 24.000,00 |
| TOURING KIROL ELKARTEA ASOCIACIÓN DEPORTIVA TOURING | 1 1530.481.07.341.10 | 40.000,00 |

**4. EH Bildu Orereta/Errenteriak eta Elkarrekin Errenteriak aurkeztutako mozioa, errefuxiatu eta migratzaileen eskubide eta beharrei buruzkoa.(2022IMOZ0009)**

**4. Moción presentada por EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria en relación con los derechos y necesidades de las personas refugiadas y migrantes.(2022IMOZ0009)**

Ondoko mozioa irakurri dute.

Leida la siguiente moción:

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

**Orereta/Errenteriako EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos Errenteria udal taldeek honako adierazpen hau egiten dute:**

Erbestea etengabeko konstantea izan da gizateriaren historian, baita gurean ere: gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Irmoki sinesten dugu errefuxiatuen eskubideetan, eta harrera integrala eta duina emateko konpromisoa hartzen dugu.

Orain, erbestealdiaren eta aterpearen bideak irauli egin dira. Gure erbestearen memoriak laguntzen digu gaur egun gerratik, indarkeria politikotik, genero-jazarpenetik, ingurumenaren degradaziotik eta bizitzaren prekarizaziotik ihesi doazen pertsonekin enpatia sentitzen.

Azken urteotan, gora egin du Euskadira nazioarteko babes bila datozen pertsonen kopuruak, bai eta Europako beste herrialde batzuetara bidean gure lurraldetik igarotzen direnen kopuruak ere.

Pandemia gorabehera, 2020an eta 2021ean Euskadik 4.809 asilo-eskatzaile jaso zituen (% 42 emakumeak ziren eta % 17 adingabeak). 2022an, nazioarteko babesa behar duten pertsonen fluxuak berraktibatzen ari dira: aurtengo urtarriletik apirilera bitartean, ia 1.287 eskaera erregistratu ziren, hau da, 2021 osoan aurkeztutakoen % 75.

Kopuru horri gehitu behar zaizkio Ukrainako gerratik ihesi iritsi direnak eta, 2001/55 Zuzentaraua lehen aldiz aktibatzeari esker, aldi baterako babeserako mekanismo espezifiko bat eskura dutenak.

Euskadi, beraz, iheslarientzako igarotze eta iriste leku garrantzitsua bihurtu da. Euskadin geratzen direnen kasuan, duten onarpen eta aintzatespen

**Los grupos municipales Orereta/Errenteriako EH-Bildu y Elkarrekin-Podemos Errenteria realizan la siguiente declaración:**

El exilio ha sido una constante en la historia de la humanidad, y también en nuestra propia historia: también nosotros y nosotras fuimos exilio. Y hoy nos toca ser refugio. Creemos firmemente en los derechos de las personas refugiadas y nos comprometemos a ofrecer una acogida integral y digna.

Ahora, los caminos del exilio y el refugio han sufrido un vuelco. La memoria de nuestro exilio nos ayuda a empatizar con las personas que huyen hoy de la guerra, la violencia política, el acoso de género, la degradación del medio ambiente y la precarización de la vida.

En lo últimos años ha aumentado el número de personas que llegan a Euskadi en busca de protección internacional, así como el número de personas que atraviesan nuestro territorio en tránsito hacia otros países europeos.

A pesar de la pandemia, en 2020 y 2021 Euskadi recibió a 4.809 solicitantes de asilo (el 42 % eran mujeres y el 17 % menores). En 2022 se están reactivando los flujos de personas necesitadas de protección internacional: entre enero y abril de este año se han registrado casi 1.287 solicitudes, lo que supone el 75% de las presentadas en el conjunto de 2021.

A esta cifra se suman las personas que han llegado huyendo de la guerra de Ucrania, quienes disponen de un mecanismo específico de protección temporal gracias a la activación, por vez primera, de la Directiva 2001/55.

Euskadi se ha convertido por tanto en un importante lugar de tránsito y de llegada para las personas desplazadas. En el caso de quienes se quedan en

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

urriak baldintzatu egiten du haien gizarte-inklusioa ahalbidetuko duen eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea, eta horrek pertsona asko zaurgarritasun handiko egoeretara bultzatzen ditu. 2020tik 2021era bitartean, Espainiako estatuan nazioarteko babesa aitortu zitzaien pertsonak % 7 baino gutxiago izan ziren, eta EBn, berriz, % 30 baino gehiago. Arrazoi humanitarioengatik bizilekua baimentzeko bidea Venezuelatik datozenenei ematen zaie ia modu esklusiboan. Bide honek dokumentazioa eta gizarteratzea errazten ditu, nahiz eta eskatzaileak ez diren errefuxiatutzat hartzen.

Ondorioz, nazioarteko babes-eskaera ukatzen zaien pertsonak (gehienak) zuzenean irregulartasun-egoerara igarotzen dira. Lana izatekotan, berehala galtzen dute. Harrera-sistemaren parte baziren, azkar ateratzen dituzte bertatik (15 egunetan), alternatiba juridiko eta sozialik gabe. Egoera horrek eragin handia du udaletako gizarte-zerbitzuetan eta migratzaileen kolektiboari eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei lotutako beste gizarte-erakunde batzuetan.

Mugei, nazioarteko babesari edo atzerritartasunari dagozkien politikak Estatuaren eskumenekoak badira ere, berehalako premiak tokiko erakundeetan kudeatzen dira, hala nola benetako harrera ematea eta integrazioa eta elkarbizitza aniztasunean gauzatzeko aukera. Autonomia Erkidegoak gizarte-zerbitzuen arloko eskumena du, eta euskal aginte publikoak dira pertsonen eta horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko neurriak hartu behar dituztenak.

Euskadi, su escasa aceptación y reconocimiento condiciona su acceso a derechos y servicios que posibiliten su inclusión social, lo que lleva a muchas de esas personas a situaciones de enorme vulnerabilidad. Entre 2020 y 2021, las personas a las que se reconoció la protección internacional en el estado español no llegaron al 7 %, mientras representan más del 30 % en la UE. La vía para autorizar la residencia por motivos humanitarios se restringe prácticamente en exclusiva a quienes llegan de Venezuela. Esta vía facilita la documentación y la integración social, aunque las personas solicitantes no se consideren refugiadas.

En consecuencia, aquellas personas a las que se deniega la solicitud de protección internacional (la mayoría), pasan directamente a una situación de irregularidad. Si tienen trabajo, lo pierden inmediatamente. Si formaban parte del sistema de acogida, son expulsadas del mismo rápidamente (en 15 días), sin una alternativa jurídica ni social. Esta situación tiene una fuerte incidencia en los servicios sociales de los municipios y en otras organizaciones sociales relacionadas con el colectivo migrante y con las personas en riesgo de exclusión social.

Si bien las políticas relativas a fronteras, protección internacional o extranjería son competencia del Estado, las necesidades inmediatas se gestionan en la entidades locales, por ejemplo el ofrecer una verdadera acogida, o posibilitar una integración y convivencia en la diversidad. La Comunidad Autónoma tiene competencia en materia de servicios sociales, y son los poderes públicos vascos los que deben adoptar medidas para promover las condiciones y eliminar los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales.

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

Xede honetan, hiriek eta udalerriek funtsezko zeregina dute. Horregatik guztiagatik, Errenteriako Udalak honako hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

1. Nazioarteko babesa aitortzeko estandarrak berma ditzala, Europako gainerako demokrazienekin bat etorriz.

2. Pertsona guztien asilo-eskubidea ziurta dezala, hauen jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Ukrainako krisiak agerian utzi du, borondate politikoa dagoenean, nazioarteko babesa behar dutenak hartzeko mekanismoak egon badaudela.

3. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonei arreta emateko bitarteko egokiak izango dituena, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez…).

4. Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege Integrala onar dezala, eta Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako organo independente bat sor dezala, diskriminazioaren biktimei arreta, laguntza eta erreparazioa emateko baliabide nahikoekin eta izaera eta eremu desberdinetako politika eta eragile diskriminatzaileak behatzeko eta haietan eragiteko ere.

5. Gizaki-salerosketaren Biktimak Babesteko eta Laguntzeko Lege Integrala onar dezala.

Las ciudades y los municipios juegan un papel fundamental para la consecución de ese objetivo. Por todo ello, el Ayuntamiento de Errenteria solicita al Gobierno español:

1. Que garantice los estándares de reconocimiento de la protección internacional, en consonancia con las demás democracias europeas.

2. Que asegure el derecho de asilo de todas las personas, independientemente de su país de origen. La crisis de Ucrania ha puesto de manifiesto que, cuando hay voluntad política, existen mecanismos para acoger a quienes necesitan protección internacional.

3. Que asegure la flexibilidad y permanencia del sistema de acogida de las personas solicitantes de protección internacional, con el fin de poder garantizar procesos eficaces de integración social, centrados en las personas. Un sistema que se adapte a las transformaciones sociales y laborales de nuestro país, que cuente con los medios adecuados para atender a las personas con necesidades especiales y, al mismo tiempo, tenga en cuenta la diversidad de las personas (entre otras cuestiones, en cuanto a género y orientación sexual, religión y cultura, edad, etc).

4. Que apruebe la Ley Integral de Igualdad de Trato y No Discriminación, y cree un órgano independiente para la Igualdad de Trato y No Discriminación, con recursos suficientes para la atención, asistencia y reparación a las víctimas de discriminación, así como para poder observar e incidir en políticas y agentes discriminatorios de naturalezas y ámbitos diversos.

5. Que apruebe la Ley Integral de Protección y Asistencia a las Víctimas de la Trata de Seres Humanos

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

Halaber, Errenteriako Udalak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonei arreta emateko bitarteko egokiak izango dituena, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez…).

2. Enplegu-bilaketa aktiborako sarbidea erraztea, prestakuntza egoki, publiko eta doakoaren bidez, bai tokiko hizkuntzak ikasteko zein etorkizunean enplegua lortzeko aukerak hobetuko dituen prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izateko.

3. Osasun mentaleko arreta-sarerako edo lan psikologikora zuzendutako taldeetan parte hartzeko sarbidea erraztea, bizi izandako egoera traumatikoetatik errekuperatzen laguntzeko.

Eta, era berean, Eusko Jaurlaritza zein Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta eta bere eremutik, Errenteriako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Etxebizitza soziala eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-arloko baliabideak eta dirulaguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea, nazioarteko babes-premiak dituzten pertsonen eta aberrigabeen zailtasunak aintzat hartzen dituzten irizpideak ezarriz, egoera bereziki ahulean dauden pertsonak kontuan hartuta, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo

Asimismo, el Ayuntamiento de Errenteria solicita al Gobierno Vasco:

1. Que asegure la flexibilidad y permanencia del sistema de acogida de las personas solicitantes de protección internacional, con el fin de poder garantizar procesos eficaces de integración social, centrados en las personas. Un sistema que se adapte a las transformaciones sociales y laborales de nuestro país, que cuente con los medios adecuados para atender a las personas con necesidades especiales y, al mismo tiempo, tenga en cuenta la diversidad de las personas (entre otras cuestiones, en cuanto a género y orientación sexual, religión y cultura, edad, etc).

2. Que facilite el acceso a la búsqueda activa de empleo, a través de una formación adecuada, pública y gratuita, que permita continuar recibiendo formación tanto para aprender las lenguas locales, como para mejorar las oportunidades de acceso al empleo en un futuro.

3. Que facilite el acceso a la red de atención de salud mental o a la participación en grupos orientados al trabajo psicológico, que les ayuden a recuperarse de las situaciones traumáticas vividas.

Y, asimismo, en coordinación con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, y desde su ámbito, el Ayuntamiento de Errenteria adopta los siguientes compromisos:

1. Facilitar el acceso a la vivienda social y a los recursos y subvenciones en materia social, educativa, sanitaria y cultural, estableciendo criterios que contemplen las dificultades de las personas con necesidades de protección internacional y apátridas, teniendo en cuenta a las personas en situación de especial vulnerabilidad, como las mujeres que han sufrido acoso por motivos de género o que sufren

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeena.

2. Gizarte-prestazioak eskuratzeko irizpideak ezartzea horien lorpena erraztera begira, eta ez prestazioak etetera bideratuta; esate baterako, jatorrizko herrialdean lortu ezin diren agiriak edo Espainiako estatuan ez dauden senideak salbuestea, izapideak arintzea eta komunikazioa hobetzea.

3. Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboei aurre egitea, prebentzio- eta monitorizazio-neurriak hartuz, eta integrazio-, bizikidetza-, berdintasun- eta diskriminaziorik gabeko planak eraginkortasunez diseinatu eta inplementatzen direla bermatzea administrazioaren maila guztietan, ikuspegi komunitariotik eta beharrezko aurrekontu-esleipenarekin.

4. Tokiko biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, errefuxiatuekin eta migratzaileekin batera gizarteratzean eta elkarbizitzan eragiteko, hala nola zurrumurruen aurkako estrategien bitartez.

5. Diskurtso arrazista eta xenofoboen aurkako jarrera irmoa izatea, diskurtso politikoek immigrazioa instrumentalizatzen ez dutela eta gorrotoaren bidez gizarte-haustura sustatzen ez dutela zainduz.

6. Zerbitzu publikoetan diskriminazioaren eta tratu-desberdintasunaren biktimei arreta ematea.

7. Memoria historikoaren balioa azpimarratzea, duela ez hainbeste, gu ere erbeste izan ginelako. Orain babesa izatea dagokigu.

Udalbatzak, aldeko 20 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV, Elkarrekin Errenteria), aho batez,

violencia machista.

2. Establecer criterios de acceso a las prestaciones sociales orientados a facilitar su obtención, y no con el fin de suspenderlas; por ejemplo, la exención de documentación que no pueda obtenerse en el país de origen o de familiares que no se encuentren en el estado español, la agilización de la tramitación y la mejora de la comunicación.

3. Combatir los discursos discriminatorios y xenófobos, adoptando medidas de prevención y monitorización, y garantizar el diseño e implementación eficaz de planes de integración, convivencia, igualdad y no discriminación en todos los niveles de la Administración, desde un punto de vista comunitario, y con la consignación presupuestaria necesaria.

4. Realizar acciones de sensibilización dirigidas a la población local, para incidir en la integración y convivencia junto con las personas refugiadas y migrantes, por ejemplo a través de estrategias anti-rumores.

5. Mantener una posición firme contra los discursos racistas y xenófobos, velando por que los discursos políticos no instrumentalicen la inmigración, ni promuevan la fractura social a través del odio.

6. Atender a las víctimas de la discriminación y la diferencia de trato en los servicios públicos.

7. Poner en valor la memoria histórica, porque, no hace tanto, también fuimos exilio. Ahora, nos toca ser refugio.

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV, Elkarrekin Errenteria).

ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e

**ERABAKI DU**

**Onartzea** EH Bildu Orereta/Errenteria eta Elkarrekin Errenteriak Udal taldeek aurkeztutako mozioa, errefuxiatu eta migratzaileen eskubide eta beharrei buruzkoa. (Testu hori erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

Deialdiaren gai-zerrendan galde-eskeen puntua falta dela ikusita, Udalbatzak aho batez, hurrengo puntua gai-zerrendan sartzea erabaki du.

5. Galdera Eskariak.

Ez da galderarik edo eskaerarik egin

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko ekainaren 28a

**ACUERDA**

**Aprobar** la moción presentada por los Grupos municipales EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria relativa a los derechos y necesidades de las personas refugiadas y migrantes, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

Advertida la omisión del punto de Ruegos y Preguntas en el orden del día de la Convocatoria, El pleno de la Corporación por unanimidad, acuerda incluir el siguiente punto en el orden del día.

5. Ruegos y preguntas.

No se produce ruego ni pregunta alguna.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 19:10 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 28 de junio de 2022

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8d74c4ad-a808-4cb3-9227-fb8de25cd07e**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2022IUBA0006-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |

Data / Fecha: 2022/06/29 10:22:06
Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Nagusia